

Dolareak, baserrietako altxorrak

Gipuzkoako baserri gehienak dolare baten inguruan egin ohi ziren



EGUNKARIA

■ ■ ■ Sagardoa egiten, Berrizko baserri batean.

Sagarraz gain, teknologia beharrezkoa da sagardoa egiteko, eta, hain zuzen, teknologia horren parte dira dolareak. XV. mendeko dolareetatik gaur egungo prentsa pneumatikoe-tara, asko aldatu dira dolareak.

Alberto Santanak baserri buruzko liburu bat idatzi zuen, eta orain dolareei buruzko lan bat prestatzen ari da, Manu Iza-girrekin batera. Prentsen ebolutioa eta, batez ere, zertarako erabiltzen ziren aztertzen ari dira. Santanak berak eman dizkigu dolareei buruzko azalpenak: «Gipuzkoako baserri zahar

guztietan dolareen aztarnak topatu ditugu. Duela 500 urteko baserri ia denek dolarea zutela uste dugu. Horregatik, gehienbat, Gipuzkoan ari gara iker-tzen. Gainera, baserri gehienak dolarearen inguruan sortuak izan zirela konturatu gara».

Dena dela, Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herriko hainbat txokotan ere dolareen eta sagardoaren aztarnak aurkitu dituzte; Elorri eta Durango aldean, Zeanurin, Aramaion, Nafarroan eta Uztaritzen garai bateko dolareak ikus daitezke oraindik.

Alberto Santana

Idazlea

«Ohiturak aldatu egin dira; sagardotegiak hirietara iritsi zirenean denbora-pasarako leku bilakatu ziren»

Erdi Arotik hasi eta gaur arte hainbat dolare mota erabili izan dira baserrietan sagardoa lor-tzeko.

Palankako dolareak

XVII. mendera arte erabiltzen ziren dolareak palankakoak ziren; bestela esanda, zeharkako presioa egiten zutenak ziren. Atal nagusiak habea, ardatza eta kontrapisua egiteko elementu bat ziren. Zazpi-zortzi metroko torloju bat zuten, eta azpian kontrapisua; bigarrena sagarrak zapaltzea zen.

Erdi Aroko dolareak etxetik kanpo jartzen zituzten, txabola batean. 1500. urtean sagardoa egiteko teknika aldatu ez arren, dolareen kokalekua aldatu egin zen. Garai honetan dolareak etxe barrura sartu ziren; arki-tekura aldatu zen, ez teknika. Dolare horiek guztiak oso handiak ziren eta, puskatzen zirenean, oso zaila izaten zen konpontzea.

1640tik aurrera beste dolare mota batzuk agertu ziren. Horiek ere oso handiak ziren; baina, hala ere, etxeko gela batean jartzen zituzten. Hainbat torloju



OSIÑAGA AUZOA - Tel.: 943 55 68 94
HERNANI

OTSUA-ENEAA

TOLARE - SAGARDOTEGIA

– Simon Etxeberria –

▼ Sagardoa
botilan salgai
urte osoan

